

SOR DEZAGUN SAREA

PUBLIKOA DEFENDATZEKO

LO PÚBLICO NOS PROTEGE A TOD@S

DEFENDÁMOSLO **JUNT@S**



www.steilas.eu



www.esk.eus

BIZITZAREN DEFENTSAN, PUBLIKOA DEFENDA DEZAGUN

COVID-19ak agerian utzi ditu beste pandemia batzuk, sistema kapitalista heteropatriarkalari dagozkionak. **ESK** eta **STEILAS** sindikatuok ikusten dugu krisia langileen eta gehiengo sozialaren bizkar utzi dela, zerbitzu publikoak sistematikoki desegitearen eta lan-eskubideen etengabeko murrizketaren ondorioz. Murrizketa horiek are gehiago baztertu dute guztien bizitzaren zaintza, eta beste behin ere emakumeen gain gelditu da; izan ere, emakumeek, modu ikusezinean, bizitzari eusten baitiote, beren bizitza prekarizatzearen kontura.


Ez dugu deus ere ikasi bizitako egoera lazgarritik. Ez da inbertitu osasun, hezkuntza, zaintza... publikoak hornitzeko, baliabide gehiago eta hobeak izan ditzaten. Langileek ikusten dute, hainbat lan-erreformaren ondoren eta beren eskubideak murrizturik, enplegua galtzen dutela eta eskubideak urratzen dizkietela. Ez da bultzatzen ekoizpen eta kontsumo eredu berri bat, prekarietateari eta langabeziari funtsezko irtenbidea emateko.

STEILASen eta **ESK** n uste dugu bizitza eta etorkizuna ditugula jokoan, eta uste osoa dugu borrokak eta mobilizazioak ezinbestekoak direla bizitza eta lan-baldintza duinak lortzeko, eta arlo publikoa indartzeko eta lehenesteko: osasuna, hezkuntza, zaintzak, pentsioak... Beharrezkoa da zainketa, osasuna eta hezkuntza funtsezko zerbitzutzat jotzea, eta horiek publikatzea exijitzea eta zerbitzua emanen dela bermatzea, premien arabera aurrekontu-euskarri baten bidez. Eta, gogoeta horretan, aitortu behar dugu zainketa balioa, eremu publikoan guztiz gutxietsitako sektore feminizatu baten gutxiespena adierazten baitu eta, arlo pribatuan, berdintasunez ez banatzea funtsezko lanak gizonen eta emakumeen artean.

Bizi alternatiba bat eraiki behar dugu kapitalak eta gobernuek aplikatzen dituzten inposizio eta murrizketen aurrean, langileriari eta gehiengo sozialari inposatu nahi dizkietenak. Izan ere, osasun-krisia ordainarazten saiatuko dira, baita krisi ekonomikoa ere, aurreko finantza-krisian bezala. Enpresa handiek banatzen ari diren Europako laguntza-funtsak ere odolez ordainaraziko dizkigute, bankuei oparitutako dirua zerbitzu publikoen eta gizarte-eskubideen murrizketekin ordaintzen jarraitzen dugun bitartean.

STEILAS eta **ESK** sindikatuok planteatzen dugu, egungo egoerak eskatzen duen erantzukizunarekin, indarrak eta borrokak batzeko eta irizpide eta behar komunak lehenesteko beharra. Hezkuntzan eta osasunean garatu diren eta gauzatzen diren mobilizazio- eta borroka-esperientziek arrazoia ematen digute. Azken asteotan bizitako sindikatuen arteko desadostasunak ez dira ugaritu behar, ez baitute deustan laguntzen arestian aipatutako helburuak lortzeko. Orain, elkarrekin, zerbitzu publikoak defendatzeko eta funtsezko zerbitzuak (zaintzak barne) publikatzeko kanpainari ekinen diogu. Era berean, gure lankidetzak eskaintzen dugu zerbitzu publikoen defentsan espazio komunak eta borroka-dinamika bateratuak sortzeko.

Bizitzaren defentsan, defenda dezagun publikoa dena.



EN DEFENSA DE LA VIDA, DEFENDAMOS LO PÚBLICO

La COVID-19 ha puesto en evidencia y agravado otras pandemias, las inherentes a un sistema capitalista heteropatriarcal. En **ESK** y **STEILAS** observamos que esta crisis se ha cargado sobre las espaldas de la clase trabajadora y la mayoría social, como consecuencia de un desmantelamiento sistemático de los servicios públicos y un constante recorte de derechos laborales. Estos recortes han desatendido aún más el cuidado de la vida de todas y todos, que ha recaído una vez más sobre las mujeres, quienes siguen sosteniendo la vida, aún a costa de precarizar la suya propia.


La terrible situación vivida no parece que haya servido de experiencia. No se ha invertido para dotar a la sanidad, educación, cuidados... públicos de más y mejores recursos. Las personas trabajadoras ven cómo después de ver recortados sus derechos, tras diferentes reformas laborales, pierden empleo y se implementan nuevas condiciones de trabajo que vulneran sus derechos. No se impulsa un cambio de modelo productivo y de consumo, que garantice el empleo digno y que ponga la vida por encima de los beneficios.

En **STEILAS** y **ESK** creemos que nos jugamos la vida y el futuro, y tenemos la convicción de que las luchas y las movilizaciones son imprescindibles para conseguir unas condiciones laborales y de vida dignas, y fortalecer y priorizar lo público: sanidad, educación, cuidados, pensiones..., por lo que es necesario identificar los cuidados, la sanidad, y la educación como servicios esenciales, exigir su publicación y garantía de servicio a través de un soporte presupuestario, conforme a las necesidades reales. Y en esta reflexión, debemos reconocer el valor de los cuidados, espacio que en lo público representa la infravaloración de un sector feminizado del todo subestimado y, en lo privado, la falta del reparto equitativo de los trabajos esenciales entre hombres y mujeres.

Tenemos que construir una alternativa de vida frente a la imposición y a los recortes que el capital y los diferentes gobiernos aplican ya, y que quieren imponer a la clase trabajadora y a la mayoría social. Porque intentarán que paguemos la crisis sanitaria y también la económica, como en la anterior crisis financiera, que paguemos con sangre los fondos de ayuda europea que ya se reparten las grandes empresas, mientras costeamos el dinero regalado a los bancos con recortes de servicios públicos y derechos sociales.

STEILAS y **ESK** planteamos, con la responsabilidad que requiere la actual situación, la necesidad de aunar esfuerzos, de sumar luchas y de anteponer los criterios y las necesidades comunes. Las experiencias de movilización y lucha que se han desarrollado y se llevan a cabo en educación y sanidad nos dan la razón. Desencuentros sindicales que hemos vivido en las últimas semanas no deben reproducirse, porque no ayudan en nada a conseguir los objetivos comentados anteriormente. Comenzamos ahora de forma conjunta una campaña en defensa de los servicios públicos y de la publicación de los servicios esenciales, incluidos los cuidados. De la misma forma, ofrecemos nuestra colaboración para generar espacios comunes y dinámicas de lucha unitarias en defensa de los servicios públicos.

En defensa de la vida, defendamos lo público.



SOR DEZAGUN SAREA

PUBLIKOA DEFENDATZEKO

EN DEFENSA DE LA VIDA, DEFENDAMOS LO PÚBLICO

Hitzaldia



Martxoaren 16an



18:00

Hizlariak

Pastora Filigrana.
Abokatu feminista,
giza eskubideen
defendatzaile
eta Andaluziako
langile sindikatuko
(SAT) kidea.

Pastora Filigrana



Abogada feminista,
defensora
de DDHH
y liberada del
Sindicato
Andaluz
de Trabajadores/as.

Jule Goikoetxea,
filosofian doktore
eta politika
zientzian
lizentziatua.
Idazlea eta EHUko
irakaslea.

Jule Goikoetxea



Doctora en
Filosofía y
Licenciada en
Ciencias Políticas.
Escritora y
profesora
de la UPV.



<https://www.youtube.com/user/STEEELAS/videos>

